

265/2022 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Araba Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerentearena, zeinaren bidez Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burua (Erradiologia Baskular Interbentzionistako Arloa) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Araba Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerentearen martxoaren 17ko 446/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burua (Erradiologia Baskular Interbentzionistako Arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko uztailaren 5eko EHAA 131 zk. eta 2021eko uztailaren 8ko EAO 162 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko uztailaren 29an amaitu zen.

Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen abuztuaren 25ekoa 1377/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burua (Erradiologia Baskular Interbentzionistako Arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 10a.

 **Osakidetza** ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA



Araba Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerentea,
KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA
José María Pérez Ramos jn.

I. ERANSKINA

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ERRADIODIAGNOSTIKOKO ATAL
SANITARIOKO BURUA (ERRADIOLOGIA BASKULAR INTERBENTZIONISTAKO
ARLOA) IZENEKO LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Fernando López Zárraga jn.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ERRADIODIAGNOSTIKOKO ATAL
SANITARIOKO BURUA (ERRADIOLOGIA BASKULAR INTERBENTZIONISTAKO
ARLOA) IZENEKO LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Enrique GUTIERREZ FRAILE jn.

Ordezkoa: Miren Idoia GURRUTXAGA ARRIOLA and.

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: Marta QUINTANA URIARTE and.

Ordezkoa: D^a. Edurne OMAECHEVARRIA LEGARRA and.

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Edurne ARTECHE DAUBAGNA and.

Ordezkoa: José Ángel LARREA PEÑA jn.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Alexander Jon AGUINAGA ALESANCO jn.

Ordezkoa: José Javier ECHEVARRIA URAGA jn.

Laugarren batzordekidea:

Titularra: María Victoria BÁRCENA ROBREDO and.

Ordezkoa: Miguel Ángel GONZÁLEZ DE GARAY SANZO jn.

Idazkaria:

Titularra: Francisco Javier PEDROSA RODERO jn.

Ordezkoa: Esther LITAGO SOLA and.